



**SOZIOLINGUISTIKA  
KLUSTERRA**

Euskara biziberritzeko  
ikergunea

---

# Soziolinguistika albistaria

---

**109. zenbakia**

2021eko urriak 22 – azaroak 4

---

## Soziolinguistika Klusterreko albisteak

### **Migrazioei eta harrera linguistikoari buruzko Euskal Soziolinguistika Jardunaldian izena emateko azken egunak**

Euskal Soziolinguistika Jardunaldia azaroaren 11n ospatuko da, Iruñeko Baluarte Jauregian. Aurten berriaz jorratuko den gaia migrazioak eta harrera linguistikoa izango da eta oraindik garaiz zaudete jardunaldian izena emateko.

### **EAEko hezkuntza sistematik hizkuntza biziberritzeari egiten zaion ekarpena elikatzen Eskola Hitzun Bila jardunaldien 25. edizioan**

Urriaren 27 eta 28an Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak urtero antolatzen duen Eskola Hitzun Bila jardunaldien 25. ekitaldia egin zen Donostiako Kursaal jauregian. Cummins eta Dolz aditu gonbidatuen hitzaldiez gain, hainbat mahai inguru izan ziren eta aipatzekoa da 400 parte hartzaile inguru egon zirela egunero. Soziolinguistika Klusterreko hiru kide bertan egon ziren hizlari moduan.

### **Jose Ramon Uriarterekin hizkuntzen ordezkapenaren portaera eredia ezagutzen**

Soziolinguistika Klusterraren bulego teknikoak 2021.eko bosgarren barne-mintegia egin du urriaren 28an. Bertan Euskal Herriko Unibertsitateko Análisi Ekonomikoaren Oinarrien Saileko kide den Joxe Ramon Uriarte irakasleak hartu zuen parte, Stefan Sperlich Genevako Unibertsitateko irakaslearekin batera garatu duen hizkuntza erabileraren eredu matematikoa azaltzen.

## Ikerketak

### **Euskararen Adierazle Sistemak ingurune digitalari lotutako adierazleak landu ditu bereziki 2021ean**

EAS Euskararen Adierazle Sistemak 2021ean lanketa berezia egin du ingurune digitalaren esparruan. Argitalpen monografiko bat argitaratu da eta adituekin mintegi bat egin da urriaren amaieran.

### **Hizkuntzen kudeaketan aurreratuak diren 30 erakunderen 40 praktika baino gehiago jaso dira Hizkuntzen Kudeaketa praktiken bilatzailean**

[Euskalit] Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika sailak eta Euskalit Kudeaketa aurreraturako erakundeak hizkuntzen kudeaketa praktiken bilatzailea aurkeztu dute Bilboko Euskalduna Jauregian antolatutako jardunaldian.

### **Imanol Artola, Felix: "Besteengan eragiten espezialista gara, baina gure barruak goxatzeko ere baliagarri izan behar dira euskara elkarteak"**

[Topagunea] Aurtengo udaberrian Galtzaundin dagoen kezka bati erantzunez eta Hiznet graduondokoaren sakontze lanaren baitan, estres linguistikoa pairatzen dutenak ahalduntzeko ikerketa egin du Imanol Artola "Felix"-ek.

## Jardunaldi, hitzaldi eta ikastaroak

### **Udalak Eragile – Hizkuntza-politikei buruzko jardunaldiak**

[Kontseilua] Udalak Eragile izenpean, azaroaren 18an eta 19an izango diren jardunaldiak aurkeztu dituzte Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika sailak eta Euskalgintzaren Kontseiluak. Tokiko hizkuntza-politikak izango dute hizpide nagusi Miramar Jauregian egingo den jardunaldian.

### **Euskarak Nafarroako hezkuntza-sisteman duen egoera aztertuko da XXVI. Jagon Jardunaldian**

[Euskaltzaindia] Hezkuntzak berebiziko garrantzia du euskararen biziberritze prozesuan. Ildo horri eutsiz, estrategikoa da hezkuntzan egitasmo eraginkorrak bideratzea gero eta eleaniztunagoak diren ikasleen artean, baina zein da euskarak Nafarroako hezkuntzan duen egoera? Galdera horri erantzuteko asmoz antolatu du Euskaltzaindiak azaroak 19ko jardunaldia.

## Hiriguneetako gazteek euskarazko kulturarekin duten harremanaz hausnartuko da 'Igo bolumena!' jardunaldian

[AHIZE] Hiriguneetako gazteak eta euskarazko kultura. Bi aldagai horien barruan sartzen denaz hausnartuko da abenduaren 2an Barakaldon. "IGO BOLUMENA! Euskara. Kultura. Transmisioa. Ertzetatik" jardunaldia izango da horretarako zita.

## XXIII Encontros para a Normalización Lingüística

[Consello da Cultura] Desde o CDSG presentámosche o programa dos XXIII Encontros para a Normalización Lingüística do 4 de novembro, que nesta edición terán un formato mixto (telemático e presencial) e xirarán arredor da transmisión interxeracional da lingua.

## Hizkuntzen ondarea babesteari eta sustatzeari buruzgo legea. Aitzinera begirakoak [BIDEOA]

[Euskaltzaindia] Euskal Konfederazioak eta Euskaltzaindiak egun osoko mintegia antolatu zuten urriaren 22an, Molac legea hizpide hartuz. Dagoeneko mintegi horretako bideoa osorik ikus daiteke sarean.

## Vídeo: VIII Jornada sobre Llengua i Societat als Territoris de Parla Catalana – L'aprenentatge del català: de l'aula als entorns d'ús

[Generalitat de Catalunya] Urriaren 23an antolatu zen VIII Jornada sobre Llengua i Societat als Territoris de Parla Catalana delakoa. Aurtengo ekitaldian ezagutzatik erabilerarako testuinguruak jorratu zituzten eta jardunaldiko bideo osoa argitaratu berri dute.

---

## Liburuak eta artikulu zientifikoak

### Communities of practice and adolescent speakers in the Basque Country. Research and transformation face-to-face

[Journal of Multilingual and Multicultural Development] This paper attempts to go more deeply into the topic of language use amongst youngsters and reflect on the possibilities that the concept of 'community of practice' (CofP) offers in this regard.

### Regulating language: Territoriality and personality in plurinational Spain

[Ethnicities] This article examines the regulation of linguistic diversity in Spain from a combined empirical and normative perspective. Spain is a particularly interesting case due to the intersection of linguistic and national diversity and its peculiar combination of legal devolution makes it a valuable case to analyze.

## **Sociolinguists and their publics: Epistemological tension and disciplinary contestation over language in Catalonia**

[Journal of Sociolinguistics] This article aims to investigate the relationship of sociolinguists with the publics in Catalonia and to disentangle the complex interrelationships among academics within the discipline.

## **Language and technology in Wales. Volume I**

[Prifysgol Bangor] This volume is based on some of the main papers presented during the Language and Technology in Wales 2020 Academic Symposium. The symposium was held with the intention of gathering some of the main researchers in Wales, sharing knowledge and promoting reflections on the matter.

## **Reflexións e desexos sobre a lingua en 2050**

[Consello da Cultura] Fernando Ramallo presenta a publicación A lingua en 2050, editada por Catro Ventos. Baixo a súa coordinación, a obra recolle as reflexións sobre o futuro do galego de 25 persoas ligadas á promoción e defensa do noso idioma.

## **Som dones, som lingüistes, som moltes i diem prou : prou textos incoherents i confusos : canviem el món i canviarà la llengua**

[HABE Liburutegia] Carme Junyent i una setantena de dones lingüistes analitzen l'ús i l'abús del llenguatge suposadament no sexista i proposen alternatives, maneres de dir i maneres de fer, que responguin als canvis socials i reflecteixin la presència de tots en tots els àmbits de la vida.

*Dokumenturen bat edo informazio bibliografiko gehiago nahi izanez gero, jo zuzenean [HABE Liburutegira \(liburutegi@habe.eus\)](mailto:liburutegi@habe.eus), beraiek arduratuko baitira zure eskaria bideratzen.*

---

## **Bestelako albisteak**

### **Hizkuntza normalizatzeko elkarlanerako bilgune eta prestakuntza iraunkorrerako AriGara plataforma aurkeztu du Eusko Jaurlaritzak**

[Hizkuntza Politika Sailburuordetza] AriGara Kultura eta Hizkuntza Politikako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren egitasmo berria da. Helburua Euskal Sektore Publikoa osatzen duten hizkuntza normalizatzeko teknikarientzako, edota euskararen erabilera normalizatzean interesa duen edonorentzako erreferentzia baliagarriak eskaintzea da.

### **Etxetik euskara dakarten haurrak ikasgela berean ala sakabanatuta?**

[ARGIA] Txerra Rodriguezek gogoeta abiarazi baino egun batzuk lehenago, hala idatzi zuen Mitxel Elorza Exeak zuzeu.eus atarian: "Datorren ikasturtean semea Gasteizko eskola publiko bateko 2 urteko gelan hasiko da. Matrikulazioa igarota, taldekatzeak egin berri dira eta etxetik euskara dakarten ikasleak gutxiengoa dira".



**SOZIOLINGUISTIKA  
KLUSTERRA**

Euskara biziberritzeko  
ikergunea

**Babeslea:**



**Gipuzkoako Foru Aldundia**  
Diputación Foral de Gipuzkoa

**Bazkide partaidea:**

**emun**<sup>®</sup>  
Euskara eta  
berrikuntza soziala